

2010eko laugarren hiruhilekoan esportazioen prezio unitarioak %6,2 igo ziren urte arteko tasan

Inportazioetan prezioen igoera handiagoa izan zen, %13,5

Euskal AEko esportazioen eta inportazioen prezio unitarioak: 2010eko laugarren hiruhilekoan Euskal AEko bai esportazioen, bai inportazioen prezio unitarioak, Balio Unitarioaren Indizeetan eta urte arteko tasetan neurtuak, igo egin dira, Eustaten datuen arabera. Inportazioetan gehiago igo da (%13,5) esportazioetan (%6,2) baino.

Aurreko hiruhilekoaren aldean inportazio prezio unitarioen igoera (%3,3) handiagoa izan da, baita ere, esportazioena (%0,8) baino.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, xede ekonomikoa aintzat hartuta. 2010eko laugarren hiruhilekoa.

(%)	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t / t-1	t / t-4	t / t-1	t / t-4
Indize orokorra	0,8	6,2	3,3	13,5
Kontsumo-ondasunak	1,0	10,8	0,9	3,6
Kapital-ondasunak	2,7	-13,7	-3,4	-3,0
Bitarteko-ondasunak	0,5	10,8	4,1	16,2

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI)

Euskal AEko esportazio prezioa: **Helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari** begiratuz gero, Euskal AEko esportazio prezioaren urte arteko tasa-igoera berbera izan da Kontsumoko ondasunetarako eta Bitarteko ondasunetarako, %10,8. Kapital ondasunek %13,7ko jaitsiera izan dute.

Euskal AEko inportazio-prezioa: Euskal AEko inportazio-prezioen urte arteko tasetan jaitsiera dago Kapital ondasunetan, %3,0. Beste bi ondasun-motek igoerak dauzkate tasetan: %16,2 Bitarteko ondasunek eta %3,6 Kontsumoko ondasunek.

Gure ondasunak esportatzen diren **eremu geografikoak** aintzat hartuz, laugarren hiruhileko honetako esportazio prezio unitarioak, lehengo urteko hiruhileko beraren aldean, handiagoak izan dira eremu guztietan. Munduko gainerakoan %2,8 igo dira, %5,2 Euro-eremuan eta %6,1 27-EBn. Prezio-igoera handiagoa izan da ELGEra bideratutako esportazioetan (%7,2). Inportazioetan handiagoa izan da prezio-igoera, batez ere ELGErekin (%8,4) eta Gainerako estatuekin (%21,3).

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, geografia-eremua aintzat hartuta. 2010eko laugarren hiruhilekoa.


Eustat (%)	ESPORTAZIOAK		IMPORTAZIOAK	
	t / t-1	t / t-4	t / t-1	t / t-4
Indize orokorra	0,8	6,2	3,3	13,5
Euro eremua	1,5	5,2	2,1	5,8
EB-27	1,2	6,1	2,8	5,7
ELGE	1,4	7,2	3,4	8,4
Gainerako herrialdeak	-0,6	2,8	3,8	21,3

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI)

Aurreko hiruhilekoaren aldean, esportazio-tasak positiboak izan dira eremu geografiko guztietan, Munduko gainerakoarekin izan ezik (%-0,6). Gainerakoetan, igoerak 27-EBko %1,2tik Euro-eremuk %1,5era doaz.

Inportazioetan, unitate-balioaren indizeen tasa-hazkundeak orokorrak dira eta handiagoak esportazioetarako baino. ELGE (%3,4) eta Gainerako estatuak (%3,8) dira gehien igotzen direnak. Euro-eremuan (%2,1) eta 27-EBn (%2,8) apalagoak dira igoerak.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak. Urte batetik besterako tasak (ioera)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea (BUI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea \(BUI\). Prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko kanpo-merkataritzako prezioen indizea \(BUI\). Datu - bankua](#)